



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK IBILGAILU ASTUNEI ERABILERA-KANON BAT EZARTEKO ARAUAREN AURREPROIEKTUAREN EZTABAIDEA HASI DABE

- **Batzordera etorrira, Imanol Pradales Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatuak hasiera emon deutso 3,5 tonatik gorako ibilgailuei erabilera-kanona kobretako aukera emongo dauen araua aurrera aterateko parlamentu-izapideari. Kanona tarte honeek erabilteagaitik ezarri ahal izango da: A-8 eta BI-10 errepideak, Basurtutik Hagaraino, N-240 errepidea Barazartik, Urgoititik Ubideako saihesbideraino; N-636 errepidea, Durangotik Gipuzkoara (Kanpazar); BI-30 errepidea (lehengo N-637), Erletxe eta Arrontegi artean; eta BI-625 errepidea Laudiotik Basauriraino.**

(Bilbon, 2022ko maiatzaren 17an). Imanol Pradales Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatuak, 3,5 tonatik gorako merkantziak garraiatzen dituen ibilgailu astunei Bizkaiko Lurralde Historikoko hainbat errepide erabilteagaitik kanona ezarteari buruzko Foru Arau Aurreproiektua aurkeztu dau gaur Bizkaiko Batzar Nagusietan. Foru-arduradunak, hemendik aurrera, “iradokizunak” eta “ekarpenak” egin daiezala eskatu deutse Batzar Nagusietako taldeei, arauzko testua “hobetzeko”.

Gobernu Kontsejuak apirilaren 15ean onartu eta gaur Bizkaiko parlamentuan aurkeztu dauen aurreproiektuak 15 artikulua eta 3 azken xedapen jasoten ditu, eta proiektu horren bitartez “free-flow” izeneko kontrol-arkuen sistema legeen ikuspegitik egokitu gura da, ahalmen handiko Bizkaiko errepide-sareko bost tartetan, honeetan, hain zuzen be: A-8 eta BI-10 errepideetan, Basurtutik Hagaraino; N-240 errepidean, Barazarretik, Urgoititik Ubideako saihesbideraino; N-636 errepidea, Durangotik Gipuzkoara (Kanpazar); BI-30 errepidea (lehengo N-637), Erletxe eta Arrontegi artean; eta BI-625 errepidea Laudiotik Basauriraino.

Aldundiak gai horri adostasun politikoan eta sozialean oinarrituta ekitea Batzar Nagusietan proponidu dau. Helburua erabileraren ondoriozko ordainketa-sistema abian jartea da, “desorekei konponbidea emoteko”, merkantzien errepideko garraioa kudeatzeko eta deskarbonizetako Europar egiten ari diran politikariek aurreratuenakaz bat etorrira. “Gure eredia Europa da”, eta, horrenbestez, EB osatzen dabena 27 herrialdeetatik 23tan daborduko egin dana imitau gura da, merkantziak garraiatzeko ibilgailu astunei kargak apliketea arautzen dauen Europako zuzentarauagaz bat etorrira, ibilgailu horreek dituen ondorio negatiboak murrizteko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Pradalesek argitu gura izan dau bere sailak oraindino “ez dauela tarifen inguruko ezelangorik hartu”, eta tarifa horreek geroago emongo dan foru dekretuaren bidez onartuko dirala. Azaldu dauenez, sektorearen “eskutik” joango dira, “sartu daikeguzan gaiak” foru arauan sartzeko. “15 bilera baino gehiago” egin dira sektoreko ordezkariakaz, eta orain denpora gitxi beste bat Ekologistak Martxan talde ekologisteagaz.

Oposizionoko taldeek hainbat kritika egin ditue. Talde Berezia-PP Bizkaia taldeak Aldundia kritikau dau, Estatu espainiarrean bidesaria ordaindu beharreko tarteak kentzen ari diran unean “kontrakoa” egiten ari dalako. Eduardo Andrade bozeroalearen eretziz, Aldundiak “60 milioi euro” gastauko ditu, besteak beste erregaiaren igoerak eragindako kostu operatiboaren igoeragaitik, garraioaren sektoreak “daborduko gehiago ezin dauen” egungo egoera ekonomikoan. Ganera, Aldundiak tarterik luzeenak –A-8 eta Txorierri– “hauteskundearen” ostean edegi gura dituala esan dau. “Batez besteko prezio haztatuan” oinarrituz, Andradek kalkulau dau A-8 autobidearen tarteak hileko “189 euroko” gastua ekarriko leukela, eta, apur bat gitxiago, 184 eurokoa, N-637 errepidearen kasuan. Bere eretziz, “azkenengo” helburua “automobilei bidesariak jartea” da.

Elkarrekin Bizkaiarentzat “eskertzekoa da” sektoreagaz hartu-emonetan egotea eta asmoa neurri adostuak ezartea izatea, baina Eva Cabornero batzordekideak ohartarazo dau Europako zuzentarauak “ez dauela bidesari gehiago ezartera behartzen”. “Geu be arduratuta gagoz arazo horren aurrean, baina ez gatoz bat konponbideakaz”, errepideko pilaketan “arduradun bakarrak” ez diralako merkantziak garraiatzen dituen ibilgailuak. “Danok gara arduradunak”. Hori dala eta, ohartarazo dau bere taldeak zuzenketa-eskeen bidez egingo dituala ekarpenak, ibilgailuaren tipologiaren edo unean uneko egoera ekonomikoaren arabera tarifa murriztuak edo salbuespenak ezarri ahal izateko.

Beste alde batetik, EH Bilduk sektoreagaz, talde ekologistakaz eta horren eragina jasaten daben udalakaz “benetako” eztabaidea egiteko beharra azpimarratu dau, “eztabaidea barik ez dogulako txeke zuririk emongo”, adierazo dau Raul Mendez batzordekideak. Kanona “apurka-apurka” ezarri behar dala uste dau, garraiolariak kontuan hartuta. Tarifak ezarterako orduan, diru gehiago batuko dala kontuan hartzeko eskatu dau Mendezek; izan be, “erabiltzaile gehiagok ordaintzen badabe”, kanon “lehiakorragea” ezarri daiteke. Arauak trafikoaren joan-etorriak “beste modu batera banatzeko” aukerea emon behar dau, kamioiak Arratiako, Ubideko eta Txorierriko uriguneetatik edo Kanpazarretik aterateko.

Foru Gobernua babesten daben taldeen lerroetatik nabarmendu danez, arau-proiektuak “premina bat beteten dau”, hau da, Europako zuzentarauak ezarten



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

dauenagaz “bat etortea”: “erabilten dauenak ordaintzen dau, eta kutsatzen dauenak ordaintzen dau”. Arau-proiektuari esker, “Bizkaiko errepide-sarean dagozan funtzionaltasun ezak konpondu daitezke. Bertan, trafiko pilaketak jasoten dituen errepideak eta oso gitxi erabilten diran beste batzuk dagoz. “Norabide onean goaz”, baina jeltzaleek ohartarazo dabe “bidea oraindino luzea izango dala eta oztopo asko izango dituala”.

ARRONTEGI ZABALTZEA

EH Bilduk eskatuta, Pradalesek auto-ilarak murrizteko Gurutzeta-Arrontegi tartean egin gura diran hobekuntzen barri emon dau. Koalizino abertzalearen eretxiz, horren ondorioz Barakaldoko biztanleen bizi-kalidadeak behera egin dau; izan be, galtzadaren zabalera lau metrotan handitu da, eta horrek errepidea –Barakaldoko urteerea, Arrontegiko zubitik– Arrontegi auzoko etxebizitzetara hurbiltzen dau.

Pradalesek azaldu dauenez, proiektuak ez dau seigarren erreirik barne hartzen. Erreiak “beste modu batera banatuko dira” eta pantaila akustikoa daukan bazterbidea gehituko da. Ibilgailuak 65 zentimetro hurbilduko dira etxebizitzetara, 13,01 metrotik 12,26 metrora. Edozelan be, proiektua idazten ari dira, eta, oraindino “aldaketak” “egin daitezke”; izan be, “5 alegazino” dagoz aurkeztuta, bat Barakaldoko Udalarena berarena. Ganera, proiektua ingurumen-baimena jasotearen zain dago.

Pradalesek adierazo dauenez, proiektuak “12 hobekuntza” jasoko ditu, besteak beste, pilaketak, zaratea eta soinu-inpaktua murriztea, eta errepidearen segurtasuna, ikuspena eta ahalmena “orduan 8.000 ibilgailutan” handitzea.

AP-68 AUTOBIDERAKO HITZARMENA

Bestalde, Talde Berezia-PP Bizkaiak Oposizino-proposamen bat aurkeztu dau, Euskal Autonomia Erkidegotik igaroten dan AP-68 autobidearen tartea arautzeko eta horren gaineko eskumenak koordinetako administrazioen arte sinatu dan hitzarmena atzera botateko. Hitzarmen hori Bizkaiko eta Arabako Aldundiek eta Gobernu zentralak sinatu dabe. Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta EH Bilduk ez dabe onartu proposamena, eta Elkarrekin Bizkaia abstenitu egin da.

Akordio horretan oinarrituta, urritik aurrera Bizkaiak diruz lagunduko ditu 2026ko azarora arte AVASA emakidadunak kudeatzen dauen autobide horretako joan-etorriak. Hileko gastu-mugea 34,55 eurokoa izango da Bizkaiko joan-etorrietan, eta 50,54 eurokoa Arabako tartean egiten diranetan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

AZPIEGITURAK ETA INTERBIAK ERAKUNDEEN BALANTZEA

Beste alde batetik, batzordeak aho batez onartu ditu, EH Bilduk eskatuta, Azpiegiturak eta Interbiak foru-erakundeetako arduradunen agerraldiak, legegintzaldi honetan gauzatu eta aurreikusitako proiektuen barri Batzar Nagusietan emon daien. Buruzagi horreek Imanol Pradales foru diputatuagaz batera etorriko dira, Batzar Nagusietako Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek sinatutako beste agerraldi-eskaera bat betez. Azken eskaera hori be Batzar Nagusietako talde guztiek onartu dabe.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA INICIAN EL DEBATE DEL PROYECTO DE NORMA FORAL PARA LA IMPLANTACIÓN DE UN CANON DE USO A VEHÍCULOS PESADOS

- El diputado foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, Imanol Pradales, ha iniciado con una comparecencia en comisión el trámite parlamentario para sacar adelante una norma que permita cobrar un canon de uso a los vehículos de más de 3,5 toneladas por utilizar los siguientes tramos: la A-8 y la BI-10, desde Basurto hasta el Haya; la N-240 por Barazar, desde El Gallo hasta la variante de Ubidea; la N-636 desde Durango a Gipuzkoa (Kanpazar); la BI-30 (antigua N-637), entre Erletxes y Rontegi; y la BI-625, desde Laudio hasta Basauri.

(Bilbao, a 17 de mayo de 2022). El diputado foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, Imanol Pradales, ha presentado hoy en las Juntas Generales de Bizkaia el Anteproyecto de Norma Foral sobre la implantación de un canon a vehículos pesados de transporte de mercancías de más de 3,5 toneladas por el uso de determinadas carreteras del Territorio Histórico de Bizkaia. El responsable foral ha apelado a los grupos junteros a que, a partir de ahora, incorporen “sugerencias” y “aportaciones” para “mejorar” el texto normativo.

El anteproyecto aprobado por el Consejo de Gobierno de la Diputación el pasado 15 de abril y presentado hoy en la Cámara vizcaína, incluye 15 artículos y 3 disposiciones finales, y con él se pretende encajar jurídicamente un sistema de arcos de control “free-flow” en cinco tramos de la red viaria de alta capacidad de Bizkaia, concretamente, en la A-8 y la BI-10, desde Basurto hasta el Haya; en la N-240 por Barazar, desde El Gallo hasta la variante de Ubidea; en la N-636 desde Durango a Gipuzkoa (Kanpazar); en la BI-30 (antigua N-637), entre Erletxes y Rontegi; y en la BI-625, desde Laudio hasta Basauri.

La Diputación ha propuesto en las Juntas Generales abordar desde el consenso político y social la puesta en marcha de un sistema de pago por uso que permita “resolver los desequilibrios” y avanzar hacia un modelo “más eficiente”, en línea con las políticas más avanzadas de gestión y descarbonización del transporte de mercancías por carretera que se desarrollan en Europa. “Nuestro modelo es Europa” y como tal se pretende imitar lo que ya se ha hecho ya “en 23 países” de los 27 que



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

conforman la UE, conforme a una directiva europea que ya regula la aplicación de gravámenes a los vehículos pesados de transporte de mercancías a fin de reducir sus repercusiones negativas.

Pradales ha querido clarificar que todavía su departamento “no ha tomado ninguna decisión” en relación a las tarifas, las cuales serán aprobadas a través de un decreto foral posterior. Ha explicado que irán “de la mano” del sector para incorporar a la norma foral “las cuestiones que podamos”. Han sido “más de 15 reuniones” con los representantes del sector, a lo que se ha sumado una reunión reciente con el grupo ecologista Ekologistak Martxan.

Desde las filas de la oposición, se han apuntado ya algunas críticas. El grupo Mixto-PP Bizkaia ha cuestionado que la Diputación vaya “a la contra” de lo que se hace en el Estado español donde se están eliminando tramos de peaje. Su portavoz Eduardo Andrade se ha quejado de que la Diputación vaya a gastar “60 millones de euros” en la actual coyuntura económica, mientras que el sector del transporte “no das más de sí”, por, entre otras cosas, el incremento de los costes operativos debido a la subida del combustible. Además, ha cuestionado que la Diputación pretenda abrir los dos tramos más largos -A-8 y Txorierrri- “después de las elecciones”. En base a un “precio medio ponderado”, Andrade ha calculado que el tramo de la A-8 supondría un gasto mensual de “189 euros”, y un poco menos, “184 euros”, en el caso de la N-637. Para él, el objetivo “final” es “poner peajes a los coches”.

Para Elkarrekin Bizkaia es “de agradecer” los contactos con el sector y que la intención sea establecer medidas “consensuadas”, aunque su apoderada Eva Cabornero ha advertido que la directiva europea “no obliga a implantar nuevos peajes”. “Compartimos la preocupación por la problemática, pero no las soluciones”, ya que la cogestión viaria “no se puede achacar solo” al transporte de mercancías. “Todos somos responsables”. Por ello, ha advertido que su grupo hará aportaciones a través de enmiendas para que se puedan establecerse tarifas reducidas o exenciones en función de la tipología del vehículo o el escenario económico del momento.

Por su parte, EH Bildu ha puesto el foco en la necesidad de que se de un debate “real” con el sector, los grupos ecologistas y los ayuntamientos afectados, ya que “sin debate no daremos un cheque en blanco”, ha proclamado su juntero Raúl Méndez. Ve necesario que la implantación del canon se haga “de forma progresiva” y teniendo en cuenta a los transportistas. Méndez ha pedido que se tenga en cuenta, a la hora de establecer las tarifas, la recaudación, ya que “si pagan más usuarios” se puede establecer un canon “más competitivo”. La norma debe permitir “redistribuir” los flujos de tráfico para sacar camiones de núcleos urbanos de Arratia, Ubide, Txorierrri o Kanpazar.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Desde las filas de los grupos junteros que apoyan al Gobierno foral han destacado que este proyecto de norma “cubre una necesidad” como es la de “alinearse” a lo que marca la directiva europea de que “quien usa, paga, y quien contamina, paga”. El proyecto de norma permite “resolver disfuncionalidades de la red viaria de Bizkaia”, en donde hay vías congestionadas y otras infrautilizadas. Se va “en la buena dirección”, si bien los jeltzales advierten de que el camino todavía “será largo y tendrá muchos obstáculos”.

AMPLIACIÓN DE RONTEGI

A petición de EH Bildu, Pradales ha informado de las mejoras viarias que se quieren acometer en el tramo Cruces-Rontegi para reducir los atascos, y que según la coalición abertzale el proyecto presentado “reduce la calidad de vida” de población de Barakaldo, ya que se incrementa el ancho de la calzada “en cuatro metros”, lo que acerca la carretera –en la salida de Barakaldo desde el puente de Rontegi- a las viviendas del barrio de Rontegi.

Pradales ha explicado que el proyecto no incluye un sexto carril, sino que se “redistribuyen” los carriles y se incorpora un arcén –inexistente ahora- con pantalla acústica. Los vehículos se acercan a las viviendas “en 65 centímetros”, pasando de “13,01 metros a 12,26 metros”. En cualquier caso el proyecto está en fase de redacción y “es posible” todavía incorporar “cambios”, ya que existen “5 alegaciones”, una del propio ayuntamiento de Barakaldo. Además, el proyecto está pendiente de recibir la autorización medioambiental.

Pradales ha señalado que el proyecto inicial incorpora hasta “12 mejoras”, entre ellas ha citado la reducción de la congestión, el ruido y el impacto sonoro, y el aumento de la seguridad, la visibilidad y la capacidad de la vía, que ganaría “8.000 vehículos/hora”.

CONVENIO PARA LA AP-68

Por otro lado, el grupo juntero Mixto-PP Bizkaia ha presentado una Propuesta de Oposición para rechazar el convenio interadministrativo para la regulación y coordinación de competencias sobre el tramo de la autopista AP-68 que discurre por el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, firmado por las diputaciones de Bizkaia y Araba y el Gobierno central. Su propuesta ha sido desestimada por Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Elkarrekin Bizkaia, mientras que EH Bildu se ha abstenido.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En base a este acuerdo, Bizkaia subvencionará a partir de octubre los trayectos en esta vía de peaje, gestionada por la concesionaria AVASA hasta noviembre de 2026, con un límite de gasto mensual de 34,55 euros al mes en los tránsitos en Bizkaia y de 50,54 euros al mes si se utiliza el tramo de Araba.

BALANCE DE AZPIEGITURAK E INTERBIAK

Por otro lado, la comisión ha aprobado por unanimidad, a petición de EH Bildu, las comparecencias de los responsables de las entidades forales de Azpiegiturak e Interbiak para que informen en las Juntas Generales de los proyectos desarrollados y previstos a lo largo de la presente legislatura. Estos dirigentes vendrán acompañados del diputado foral Imanol Pradales en virtud de otra solicitud de comparecencia firmada por los grupos junteros Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, y que ha sido aprobada también por todos los grupos de la Cámara.